



# EIZKERA



## 1932-33

### Amantzi Urriolabeitia

Amantzi Urriolabeitia botikaria, Irigoyenen mailan ez baina, Lekeitioko artxiboan ibili zen buru-belarri<sup>1</sup> eta lan polita egin zuen, baina dagoeneko agertu izan da Kurik 3an eta liburu honetako lehen tomoan. Horregatik aipatu egin behar dugu baina ezin ditugu errepikatu esandakoak. Beraz Amantzi ezagutu nahi duenak Kurik 3an aurkituko du informazio gehiago eta Lekeitioko lauda flamen-darren gaineko artikulu osoa ere bai. Lekeitioko armarriari buruz idatzi zuena aurreko liburukian aipatu genuen baina zuzenean irakurri nahi duenak [sanchoelsabio.eus](http://sanchoelsabio.eus) webgunean aurkituko du.

Sancho el Sabio Fundazioa  
[sanchoelsabio.eus](http://sanchoelsabio.eus)



1 LUA/Udal aktak, 1932-10-2: "Acto continuo el Ayuntamiento pasa a tratar de las gestiones realizadas por el cultísimo euzkerólogo Don Amancio de Urriolabeitia que viene efectuando interesantísimos estudios históricos y que desea continuar el detenido análisis del Archivo de Lekeitio para completar los datos necesarios para las importantes publicaciones que está preparando y que servirán para difundir el conocimiento de lo que fué en el pasado la vida colectiva del municipio lekeitiuano. El Señor Urriolabeitia aprovechando su estancia durante unos días en esta localidad permaneció largas horas en el Archivo dedicado al estudio de los documentos, que contiene, pero habiendo tenido que incorporarse al desempeño de su actividad en Bilbao, se ve imposibilitado de seguir la obra emprendida con evidente perjuicio para los intereses históricos del pueblo de Lekeitio, que posee inédita y desconocida una gran riqueza documental en los legajos y tomos del Archivo. Con objeto de que el laudable y meritorio propósito del Señor Urriolabeitia no se malogre, el Ayuntamiento, accediendo a la petición, que a este fin ha dirigido por conducto del Señor Alcalde, adopta el acuerdo comprendido en los siguientes párrafos..."

Bere etxera utzi zitzaion bana banaka eramaten liburukak bera zelako! (en atención al prestigio del Señor Urriolabeitia).

Euzkerea, 1932-12-15/1933-1-15

Euzkerea, 1933-11-15



### BARKORA MARIÑELAK

Hala ere, liburuki hone-  
tan audioekin gabiltza-  
nez, Urriolabeitiak aita  
Donostiari esandakoak  
erakutsiko dizkizuegu.  
Kurik 3an agertu zen  
hemen errepikatuko  
duguna baina oraingo  
honetan kanta entzute-  
ko aukera izango duzue  
(birus madarikatu honen  
baimenarekin). Han esaten  
genuen, eta hemen erpepi-  
katu, Amantzi Urriolabeitia  
musiko oso ona izan zela -go-  
goratu Etxebarrietaren hitzak  
botikariei buruz-, beraz, aita  
Donostiari esandakoak konfian-  
tzarik handiena merezi digu. Eta  
zer adierazi zion ba?

Hemen aita Donostiari "Cancione-  
ro" liburuan batutako Amantziren  
hitzak (1942-7-3):

"Esta melodía se cantaba en Lequei-  
tío, en la escuela de párvulos de D. José  
Etxeberria, hasta el año 1887, año en que  
dejé de asistir a este Centro docente".

Barkora, mariñelak  
Barkora, mariñelak.  
Juan biar dogu urrunera,  
Bai, Indijetara,  
Bai, indijetara.  
Etxat, ez, aztuko  
Zure plai ederra. } bis  
Agur, Lekeítio,  
Itxaso basterra!  
Agur, Lekeítio,  
Itxaso basterra.  
Agur, Lekeítio!

Eta jarraitzen zuen: "Mi padre, que era on-  
darrés, de buena memoria y no mal músico, nos  
decía que al aplicar el nombre de la localidad en  
la despedida de la canción, era a gusto del can-  
tante. En su juventud (hacia el año 1870) tomó  
parte en un orfeón que se formó en Ondarroa, y  
no le oímos nunca jamás decir que cantasen el  
"Boga-boga"; y parece puesto en razón que en  
una masa coral apareciese, como pieza obliga-  
da, la que hiciera referencia al pueblo". Ez diegu  
nahi ondarrutarrei kantarik lapurtu, dagozela  
trankil, "geurea" berreskuratu baizik. Badaki-  
gu Lekeition gutxienez XIX. mende amaieran  
kantatzen zena baina baliteke gurea ere ez iza-  
tea, katek ez dute frontierarik eta. 1905eko  
batzokiko artikuluan (ikus 122. or.) Boga-bo-  
ga kanta aipatzen da, beraz ordurako izen hori  
erabiltzen zen. Betikoa, ikertu beharra dauka.

Noizkoa den kanta beste kontu bat da.  
Amantzi hazi egin zen eta azalpen sasihistori-  
ko poetiko-erromantikoa aukeratu zuen:

"La melodía que transcribo pudiera bien  
ser parte de alguna pieza de teatro (al estilo  
de "El Borracho Burlado"), representada por la  
aristocracia lekeitiarra de fines del siglo XVIII.  
Había en este tiempo entre dicha aristocracia  
(los Otxandegi, Oxangoiti, Renteria, Navarro-  
Larreategi...), la costumbre de celebrar veladas  
literarias y concursos de poesías en romance y  
bascuence por acontecimientos que hoy nos pare-  
cen fútiles: la traída de aguas, el plantío de árbo-  
les en la alameda, etc. etc.; y eran, generalmente,  
las señoritas las encargadas de expresar  
su mejor o peor genio poético o literario.  
Me imagino ver en uno de los salones de esta  
aristocracia o en el salón del Ayuntamiento  
(que también se utilizaba para espectáculos  
públicos) un paso de escena, en que instalados  
los marineros en alguna txalupa figurada, se les  
ordena bogar (rau, rau) hacia el buque que ha  
de conducirlos a las Indias, despidiéndose del  
pueblo objeto de sus afecciones. (Fin de acto y  
telón despacio)".

Kontuan izan ez  
direla gure hitzak  
Urriolabeitiarenak  
baino eta gainera  
Amantzi imajina-  
tzen ari dela (etxe-  
ren batean partitura  
agertu arte ez da  
halakorik frogatuko).  
Baina badaezpada geuk  
ere Kurik 3an erabili ge-  
nituen gortina gorriak be-  
rreskuratuko ditugu Aman-  
tzi gogora ekarriz.

